

**COVID-19 birusak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriarekin bat etorrira:**

- 1.- Kontratazio espedienteak prestatzeko egintzak normaltasun osoz izapidetuko dira.
- 2.- Argitaratzeko edo lizitzatzeko fasera iritsitakoan, kontratazio-organoak erabakiko du kontratuaren deialdia edo lizitazioa argitaratu ala ez. Argitaratzea erabakiz gero, eskaintzak aurkezteko epeak automatikoki etentzat joko dira, eta, beraz, ohartarazi beharko da lizitazioko agirietan eta/edo iragarkietan adierazitako epeak ez direla hasiko alarma-egoeraren deklarazioak eragindako etenaldia amaitzen den arte.
- 3.- Kontratazio mahaietan dauden espedienteetan, barne tramiteak egiten jarraituko da, beti ere, operadore ekonomikoen inplikaziorik eskatzen ez denean. Hirugarrenen parte hartzea behar den kasuetan (eskaintzak aurkezteko, zuzenketak egiteko, agiriak aurkezteko, saio publikoak egiteko...) epeak etenda daude, salbu eta:

- Epeak ez eteteko hirugarrenen adostasuna dagoenean.
- Interes orokorrean oinarrituta beharrezkoa denean epeak ez etetea.
- Zerbitzuen oinarritzko funtzionamendua bermatzeko beharrezkoa denean epeak ez etetea.

Hiru kasu horietatik bat ematen bada, espedientearekin jarraitzeko **arrazoitutako erabakia hartuko da.**

Kontratazio mahaiak alarma egoera irauten duen bitartean bideokonferentzien bitartez egingo dira. Publikoak diren kontratazio mahaiak burutzen badira aurretik aipatutako hiru kasuetatik bat ematen delako, lizitatzailerek bideokonferentzien bitartez parte hartu ahal izango.

4. Lizitazioaren eta kontratua formalizatzearen aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiria aurkezteko fasean dauden espedienteetan, bai eta kontratua formalizatzeko fasean daudenetan ere, jarduketa administratibo horietarako epeak etenda daudela ulertuko da, salbu eta:

- Enpresa esleipendunek beren borondatez betetzen badituzte aurreko eskakizunak.
- Interes orokorrean oinarrituta beharrezkoa denean epeak ez etetea.
- Zerbitzuen oinarritzko funtzionamendua bermatzeko beharrezkoa denean epeak ez etetea.

Hiru kasu horietatik bat ematen bada, espedientearekin jarraitzeko arrazoitutako erabakia hartuko da.

- 5.- Etete-neurri hauek ez die eragingo alarma egoeraren adierazpena eragin duten gertaerekin zerikusia duten kontratazioei.

**2020ko martxoak 20an**

**Bermeoko Udala**

